


EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK

EAEko ekonomia %2,2 haziko da 2019an

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



EAEko eta inguruneke informazio ekonomiko berria argitaratuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2019rako ekonomia aurreikuspenak berritu ditu. Hazkunde aurreikuspen eguneratuek seinaltzen dute barne produktu gordinaren hazkunde tasa %2,2an egongo dela 2019an eta zertxobait gutxituko dela datorren urtean, urte horretako hazkundea %2,0an kokatuz. Osagaiak aztertuta, barne eskariaren ekarpena etengabea eta esanguratsua izango da. Aldi berean, kanpo eskariak ekarpen zertxobait negatiboa egingo dio BPGaren hazkundeari bi urteetan. Eskariaren ikuspegitik, azken kontsumoak ezagutuko du moteltze biziena. Aitzitik, kapital eraketa gordinak gehikuntza hedakorra eskuratuko du, enpresek konfiantza erakusten duten inguruneak lagunduta.


Azken kontsumoa

Urte arteko aldakuntza tasa




Kapital eraketa gordina


Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren balio erantsia Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia Urte arteko aldakuntza tasa




Zerbitzuen balio erantsia Urte arteko aldakuntza tasa



Eskaintzari dagokionez, aurreikuspenek seinalatzen dute jarduera adar guztiek, lehen arloak izan ezik, ekarpen positiboa egingo diotela balio erantsiari. Urteko batez bestekoan adierazita, industriaren aldakuntza tasa %1,7an kokatuko da 2019an eta %1,9ra areagotuko da 2020an. Eraikuntzak bere bizitasuna apalduko du, baina sektore dinamikoena izango da. Azkenik, zerbitzuek hazkunde egonkorreko eta iraunkorreko profila markatuko dute.

Enplegu sorrera %1,5ean kokatu da 2019rako eta %1,3an, berriz, 2020rako. Tasa horiek esan nahi dute 14.800 eta 12.500 lanpostu garbi sortuko direla bi urte horietan, hurrenez hurren. Langabezia tasa berriro gutxituko da datozen hiruhilekoetan eta %10,0aren azpian egongo da bi urteetan.

Enplegua Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia tasa Urte arteko aldakuntza tasa

